

## **SAGUESERAKO EGITASMOEN ETA UDAL PROIEKTUA ERAKUSKETAN EZ EGOTEAREN INGURUKO MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Sagueserako asmoak direla eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean 2017ko ekainaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Nestor Basterretxearen Bakearen Usoa Amara Berritik Saguesera eraman zenean, aurreko Udal Gobernuak ingurunea hobetzearen aldeko apustua egin zuen. Urbanizazio proiektua zehaztu eta onartu zuen, baina nahiz eta aurrekontua izan, Udal Gobernu berriak baztertu egin zuen proiektu hura; beste hotel bat eta oinezkoentzako Monpas-Sagues pasarela egin nahi zituztela zioten. Gauzak horrela, gaur egun, agintaldiaren erdian, ez dago Sagueserako inongo proiekturik. Arkitektura Eskolarekin elkarlanean proiektuen erakusketa antolatu dute eta, noski, parte hartu duten irakasle-ikasle guztiei egindako lana eskertu behar diegu. Baina errealitatea da gaur gaurkoz erakusketa bat besterik ez dagoela Saguesen, eta Udal Gobernuak bi urte behar izan dituela, hain zuzen, hau antolatzeko.

Alkateak batzordean adierazi zuenez, erakusketaren ondoren, EHU-k irizpideen dekalogo bat osatuko du, Udalak proiektua egin dezan. Nola uztartzen da bertsio berri hau onartutako aurrekontuekin? 2016ko aurrekontuan bi partida azaltzen baitira, hainbat urtetarako: 2016rako 60.000 eta 2017rako 640.000 euro. Onartu den ondorengo aurrekontuan, 2017koan, berriz ere, hainbat urtetarako partidak azaltzen dira: 2017rako 1.572.653 eta 2018rako 673.994 euro. Zer kudeaketa mota da hau?

Aurreko Udal Gobernuak Sagueserako proiektua onartua zuen 750.000 euroko aurrekontuarekin. Eta hala ere -eta Udalak berak egindako egitasmoa izan arren-, ez da erakusketan txertatu. Eta ez dakigu oraindik ere zein den arrazoia.

Kontuak kontu, agintaldi erdia joan da, Udal Gobernuak ez du Sagueserako hobekuntza proiekturik eta bat-batekotasuna da nagusi.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio, aurrekontuak egin baino lehen, ideiak eta egitasmoak ondo azter ditzala, kudeaketa egoki bat bermatzeko.

2-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio Sagueserako udal proiektua EHUri helaraz diezaiola irizpideen dekalogoia egiterakoan beste ikuspuntu bat ere izan dezan azken honek.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an



Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**